

SIGNO BATEK ZER SIGNIFICATZEN DU?

1.- Behin zapatu batean Jesusek osatu egin zuen esku bat paralizatua zuen bat, eta agindu zion eskuari luzatzeko eta luzatu zen bere forma osoa hartu arte. Nik embriologia esperimentalak estudiatu nuen behin tesia egitekotan nengoelako eta osatze hori definituko nuke induccio perfectu bat bezala. Jakina da filosofian eta ciencian nola induccioa sekula ez dela perfectua cosmos honetan, beraz Jesusek burutu bazuen induccio perfectu bat, horrek erran nahi du ezen Jesusek esperiencia material orotik gain dagoen ezagutza universalaren jabe dela, eta hortik a priori erabakitzen ahal du induccio bat, eta modu perfectuan gertatzen da.

Teologoek definitzen dute miraria (signoa) nola gertakizun bat cienciak sekula ezin comprenitu duena, eta induccio perfectua teorizatzen ahal dugu baina comprenitu ezina da, mirari baten definicioa izan daiteke.

Nik, hala ere, badut descubritu signoaren definicio hobea, signo bat da juicio sintetico bat a priori. Piska bat arrazoituz ikasten ahal da ezen induccio perfectu bat juicio sintetiko a priori delakoaren mota bat dela. Eta haria definicio biak lotzeko a prioritasuna da, casu bietan igertzen baita hori modu infabile batean.

Baina cosmos honetan ezagutza a prioristicorik ezinezkoa da, beste cosmos goragoko batekoa izan behar da izatekotan, erraten ahal dugu, eta Jesusek baldin bazuen ezagutza a prio-

risticorik ezagutza hori, esperiencia material orotik gain dagoen ezagutza hori, ez da cosmos honetakoa. Beraz badago hitz egiterik, ciencia ere egiterik (filosofia ciencien ciencia bada), cosmos material honetatik harutzagoaz...

2.- Kant filosofoak galdetu zuen lehenbizi ea posible ziren juicio sintetikoak a priori cosmos material honetan, eta itsututa ez zuen ikasi Jesusek, ez beste inork, egiten zituela. Baina nik, ez dakit besteez zer erranen duten nitaz, baina nik badut ikasi hori, eta ikaspen horrekin planteatu egiten zait derrigorrezkoa dela egitea halako revisio bat filosofiaren historiarena, escolasticaren eta filosofia lehenaren defuncio proclamatu hartatik hona garatu den filosofiaren historia revisatu beharra dago, eta comparacio bat eginez filosofiaren disciplina mahasti bat bezala hartzen badugu, podatze lanak ezinbestekoak dira, gaizki hazia sutara botatzeko, ondo hazia trabarik gabe hazi eta garatu dadintzat hobeto. Begien vistan dago.

3.- Zeren erraten baita gu garela homo sapiens sapiens, eta nik diot, sapiens piska bat bai, Aristotelesek ere bazioen badugula ezagutzeko eta comprenitzeko halako joera berezkoa, baina bi bider sapiens?, hori jada ez. Piska bat ikertzen badugu historia humanoan hobetsi egingo duguke, diot nik, honelako definicioa: homo sapiens falaciensis. Eta horrekin conturatu egiten gara zenbateraino tronpatu egiten garen, eta apalduz gure intellectoa aurrera egiten dugu errezago jakindurian.

Adibide bat ipiniko dut. Escolastica tradicionalean afirmatzen da filosofia naturalatik, revelacioa aintzat hartu gabe, badaitekeela Jainkoaren esistencia demostratu, lau causen teoria hor dugu, ezinago perfectua ere, baina gaur egungo materialismoak, Kantekin hasia niretzat, badu demostratzen ezen bide hortatik soilik iritsi daitekeela lege natural universalaren ondorioztatzera, baina hortik ez da jauzi egiten sobrenaturalismora, nik egiten dudan moduan signoak ikertuz, eta bai materialismo hutsera, materialismo ateora.

Nik revelacioaren lagungarri inseparableak diren signoak hartzen ditut aintzat nire estudioetan, eta agian esaten ahal ditate arrazoiz ez dudala filosofia naturala egiten. Nik halakoei erantzuten ahal diet egiten dudana dela filosofia naturalaz gain filosofia sobrenaturalera naroan fenomeno historikoak diren signoen estudioak. Ajuste bat?, actualizatzeko bat?, bai, actualizatzeko bat aintzat hartuta egin diren aurrerapen batzuk filosofia garbian. Zeren nik, escolastico tradizionalen kontrara, daukat ezen filosofia naturalaren mugak Kantek jarri zituela ezinago ondo. Harek usteko zuen horrekin escolastica tradizionalari azken ematen ziola, baina mugatze horrek ez du filosofia naturalaren alcancea deusesten, gutxienez filosofia naturalak badu teorizatzen faro bat, nire estudioen arabera dena bat nik ondorioztatzen dudanarekin. Kantentzat faro hori teorizazio huts bat da, inesistentea, niretzat egia infamea, esistentea, egia falaciagabea, atea Zeruetako Erresumari begira, causa finalari begira azken batean, ongiaren eta gaizkiaren cienciaren ezagutza perfectua, zeina baita nire intelektualismo moralak seinatzen duen santutasuna, baldintza ekidinezina dena Zeruan sartzeko, graziaz lortua, gracia barik ezinezkoa baita paradisuan sartzea.

4.- Ez naiz hasiko hemen Jesusek zer significatzen duen nire bizian... izan dira, carmelitetan adibidez, gauza oso onak erran dituztenak, bakoitzak bere nortasunaren neurrian. Niri?, seguridade osoa ez dit ematen, hori badaki ondo, baina esperanza zoragarria bai, batez ere honelako arrazoiekin nabilelarik. Espero dut; ez dakit digno izango naizen: reza por nosotros santa madre de Dios, para que seamos dignos de alcanzar las promesas de nuestro Señor Jesucristo...

Eta estutu egiten naiz, eta hori emazteak ere egiten dit. Behin ibili nintzen pensatzen Abrahamen askazikoa izan nindekeela, eta emazteari comentatu nion, eta harek zioztan ezinezkoa zela hori, gaiztoegia nintzelako. Baina bera ez da confesatzen, esaten dit ez dakiela, Jainkoarekin egiten duela hori, eta catolicoa da, baina nik esaten diot catolicook pekatuen barka-

mena lortzen dugula, egoera normaletan, confesioan, eta behin esan zidan nik confesatzeko bere lekuan, baina, arrapostu nion nik, hori salaketa bat izango litzateke...

Eta hola ibiltzen gara, abadeak baditugu ezagutzen, oso errez daukagu, secretua gorde egiten da, confesio comunitario batera joateko prest dago nire Celiña, baina gutxi egiten dira eta berarentzat desorduetan... eta hola dabil gure matrimonioa, agian catolicismoa gaur egun nola dagoen ispilua da gu-rean gertatzen dena, catolico practicante garanok.

Adibidez, lehengunean galdetu nion honela, erdaraz: tu que prefieres como los amantes de Teruel, tonta ella y tonto el, o el astuto matrimonio Garmendia- Martins, eta bigarrena nahia-go zuen, eta jakina da nola Jesusek hori gomendatu zuen Bere jarraitzaileei, tontoak behintzat ez izateko.

5.- Ni ez naiz teologoa, catolico laico particular bat naiz, eta nire azken vocacioa filosofia izan da, ciencias ciencia, eta nago escolastica catolicoaren jarraipen baten alde, actualizatzeen alde. Eta nirea aportacio bat da, eta aseguru nahi dut nire aportacioa atzera begiratu barik. Nik ere ahal dudana egiten baitut.

6.- Nire lanaren berri nahi duenak irakurri dezala nik idatzia asunto guzti hauetaz. Lehengunean lagun batek ziostan nik esaten dudala Jainkoaren esistentziaren demostracioa atera dudala nire garun privilegiatutik, niri traza egin nahian, eta gero erantsi zuen, ahotsa goratuz eta ni agerian jarriz taberna hartan, demostratua dagoela ez dagoela modurik filosofiatik Jainkoaren existencia demostratzeko, esaten bezala ea zer erotasun clase nuen nik, eta ero senti arazi zidan piska batean. Baina nik arrapostu nion, zeinek laga zuen demostratuta ez dagoela modurik Jainkoaren existencia demostratzeko filosofiatik?, eta jarraitu nuen, hori Kant izan zen. Nire lagunak sekula ez du hasi ere filosofiako carrera, ni carrera horretan aspaldidanik estudiantea naiz, UNEDetik, eta esan nion, jarraituz nire hizpidea

garatzen, zeren juicio sinteticoak a priori ezinezkoak baitira filosofia naturalean centratur gero, eta holaxe egia da, baina, galdetu nion nire lagunari, debate bizian geundela, polemican ere, irakurri badituzu nire izkribuak jakingo duzu zer fenomeno historico estudiatzen dudan bereziki nire demostracioa egiteko. Eta nahastuta zebilela esan nion nik fenomeno historico hori zela Jesusen mirariak, miraculuak, eta horien definicio batera iritsia naizela, eta galdetu nion nola definitzen zituen, eta ixilik geratuz hor amaitu zen gure polemica. Haren neskak niri contra egiten, bere novioaren alde, esan zuen magia zirela eta hola, eta ni harrituta geratu nintzen, catolicotzat baintuen...

Nik demostratzen dudana da zerbait Jainkoaz badaitekeela demostratu mirariak estudiatuz, Jesusen mirariak estudiatuz bereziki, eta soilik Jesusen bitartez amets egin daiteke ganora minimo batekin Zeruetako Erresumarekin, hemen ez dagoena, jakina den moduan, salvacioarekin hitz batean. Hortik landa bide mordua daude, asko eta asko, galtzean amaitzen direnak. Eta escritura catolicoek hori berori diote, soilik Jesusen bitartez topatzen ahal dela erremedioa, salvacioa, maitagoaren asebetetzea, Garatek zioen moduan.

7.- Eztabaida absurdoa ere da filosofia naturalarena, zeren esaten baita ezen horren estudiogaia dela natura osoa salbu sobrenaturala dena, eta hola bada orduan filosofia naturalaren alcancea oso pobrea da, gaur egun, laburbilduz nire hizpidea, esan daiteke geratzen dela cientifismoan, escepticismoaren aldaera modernoan. Baina filosofia naturala hartua da filosofia osoa bezala, horregatik nire lagunak ez zidan esan filosofia naturaletik ezin demostratu daitekeela Jainkoaren esistenciarik, eta bai esan zidan combenciduta filosofiatik ezinezkoa dela demostratzea Jainkoaz ezer. Eta barre egiten zion horrela nire argumentacioari, ezagutzen ez bazuen ere.

Filosofia naturala, teologia naturala, dira terminoak erabiliak izan direnak batez ere escolastican, eta nik diot Platonen intui-

cia ez da demostracioa nahiz eta intuicioa perfectua den, baina ez da demostracioa, eta badaude modu materialistak causa formala estudiatzeko (nominalismoaren casua hor dugu), Kantek ere filosofia naturala egin zuen soilik, ez baitzuen aintzat hartzen bere estudioan sobrenaturala dena indikatzen duena, historicoa izan arren, adibidez, Jainko egiazkoa eta gizon egiazkoa den Jesusen signo bat. Eta nik ez dut banatuko Jesusen izaera (azken aldi honetan egin den moduan), eta filosofia naturala egiten dudala afirmatzen ahal dut eta aldi berean Jesusen aintza descubritzen dut Haren signoen estudioetan. Eta guzi hori dena bat da nire filosofia escolasticoan. Eztabaidarako novedadea dakart. Ez dut, teologian piska bat nire burua sartuz, teologia historico criticoa egiten, criticismoa escepticismoa dakarrelako pensamendua, nik teologia historicoa egiten dut, beste barik, eta horrela bada nire filosofia naturala, hau da, filosofia osoa, gertatu oro hartzen baitu bere estudioen objektu, Jesusek Berak egiten zituen signoak barne.

Nik filosofia naturala egiten dut gertakizun historicoak diren Jesusen signoak aintzat hartuz nire estudioetan?. Historia osoa aintzat hartzen ez dutenak, sobrenaturala ageri dena baztertuz, filosofia naturala egiten dute?. Nik daukat ezen hor polemica antzua gertatzen ahal dela, egia da filosofia naturalatik alcance pobrea dugula, apaizek ere diote ez dagoela modurik demostratzeko ezer Jainkoaz bide hortatik, baina filosofia naturala ez da filosofia guztia, parte bat baizik, eta alcancea du zerbait, pobrea, baina badu, nahiz eta azken evolucioa eduki duen cientifismora. Nik filosofia osoa hartzen dut aintzat, eta hor jada badira sartzen ahal Jesusen signoak (san Juan da evangelistetan filosoficoena niretzat), gertakizun historicoak direlako, eta filosofia lehena, escolasticaren tumba horretan zaharkitua geratu dena, baina usteltzerik ezagutu gabe, filosofia lehena jasoen egiten dut eta gelaren kandelairuaren gainean jartzen dut, gela osoan argi egin dezantzat. Jesusek behin parabola batean zioen moduan.

8.- Eta ciencia ezinezkoa baldin bada egitea gertakizun sobrenaturalekin, nolabait esateko, ciencia den filosofia ere ezinezkoa da gertakizun guztiak, sobrenaturalak ere, behintzat egiazki historicoak direlarik, gertakizun guztiak aintzat hartu gabe. Casu bietan edo ciencia geratzen da ezinezko eta progresoa tratatua da, edo filosofia geratzen da cientifismora bultzatua, escepticismora. Ordenatuz gero, ciencia libre da bere bilaketetan egiari buruz beti eta filosofia ere, geratzen dela filosofia, esan dudan moduan, ciencia den bezala, buruan.

9.- Mirari baten definicioa aintzat hartzean, nahi duenaren dako, nahikoa da fedebidean sartzeko, nik definicio horretan sakondu dut, eta filosofian sartu naiz bete betean, nik ez dut teologia egiten. Eta daukat ezen iraultzatxo bat ere egiten dudala filosofiako estudioetan, nagusitua dagoen escepticismoa filosofiaren centralidadetik botaz.

Roman Garmendia